



OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	OGASUN ETA FINANTZAK	2015	120.972.994 euro (*)
(*) Aurrekontu propioa (Erakundeekiko konpromisorik gabe)		2016	120.029.728 euro (*)

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Zerbitzu Orokorrak

Kodea 6.01

Genero egokitasuna Txikia

Aurrekontua 8.951.834 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa, eta departamentuarekiko azken urteotako portzentajea

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokotan)	10.607,00	10.345,00	7.477,72	9.006,50	8.951,83	-2,47%	-27,72%	20,44%	-0,61%
DPTU. AUR. PROPIOA (%)	9,28%	8,86%	5,68%	7,45%	7,46%	-4,54%	-35,88%	31,02%	0,17%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Zerbitzu Orokorretako programan jasota daude Zuzendaritzak bultzatzen dituen departamentuaren helburu eta ekintza orokorrak, bai eta Idazkaritza Teknikoari dagozkion laguntza eta koordinazio helburuak ere.

Genero alorreko helburuei dagokienez, Zuzendaritzari dagokio antolaketaren kulturen aldaketa eragitea, erabakiak hartzean pertsonen ikuspuntua kontuz.

Bestetik, Idazkaritzari dagokio funtzio hori betetzea departamentuaren jarduketari dagokienez, besteak beste, Berdintasun Planean jasotako departamentu egiturei dagokienez, bai eta plan horretan jasotako jarduketa jakin batzuk martxan jartzea ere.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarrien bidez jarritako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburua
Antolaketaren kulturen aldaketa eragitea, erabakiak hartzean pertsonen ikuspuntua kontuan hartuz.	Genero eraginaren ikuspuntua sartzeko departamentuko arauak prestatzean	Txostenak	%100
	Departamentuko Berdintasun Planaren diseinuaren bultzada	Urteko plana	1
	Berdintasun Planaren exekuzioaren kontrola	Exekuzioa	%100
Departamentuko organo eta unitateen jarduketak koordinatzea eta haiei aholkua ematea	Berdintasun Planeko departamentu egituren idazkaritza	Bilerak	2
	Genero ikuspuntua sartzeko kontratazioko eta diru laguntzen emakidako espedienteetan	Baldintza-errien ereduak	1
	Komunikazioetako genero hizkeraren berrikuspena	Komunikazio masiboak	12



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Programak ez du eragin zuzenik herritarrengan, baina bai, ordea, Administrazioako langileengan.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Programa honetako jarduketan helburua da departamentuak garatu beharreko ekimenak Zuzendaritzak bultzatzea, eta Berdintasun Planaren barruan azterketa edo hausnarketa kualitatiboa egin beharreko ekintzak ezartzen laguntzea.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA, AZALDU

Ez.

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK EDO HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



OGASUNA ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Ogasun eta Finantza	2015	120.972.994 euro (*)
(*) Aurrekontu propioa (Erakundeekiko konpromisorik gabe)		2016	120.029.728 euro (*)

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Laguntza eta Herritarren Arreta

Kodigoa 6.02

Genero Egokitasuna Ertaina

Aurrekontua 11.095.047 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa, eta azken urteotan departamenturako adierazten duen portzentajea.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)			10.003,27	11.056,24	11.095,05			10,53%	0,35%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/			7,60%	9,14%	9,24%			20,23%	1,14%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Barne prozesuak normalizatu eta hobetzeko proiektuak bultzatzea eta koordinatzea, eta herritarren arreta zerbitzuak garatzea.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Ekintzak bultzatzea zerga obligazioak borondatez bete daitezten laguntzeko.	Zerga heziketako modulu bat ezartzea DBHko 4. mailatik aurrera.	Ikastetxeak	10
Antolaketa eta zerbitzuak herritarren eskarietara egokitzea	Kalitateko zerbitzu balioaniztunak garatzea, euskararen erabilera eta aukeren berdintasuna sustatzeko, eta herritarrei zerga obligazioak ulertzea eta betetzea errazteko.	Herritarren gogobetetze inkestak	2

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak



3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Lehen helburuari dagokionez, parte hartzen duten ikasleen kopurua jaso behar du jarduketak.

Bigarren helburuari dagokionez, jarduketak islatu behar du zenbat gizonezko eta zenbat emakumezko hartzen duten parte iritzia jasotzeko prozesuetan.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Lehen helburuari dagokionez, neurriak helburu jakin horretan duen eragina (herritarren artean kontzientzia zibiko-tributario handiago bat sustatzea zerga obligazioak borondatez bete daitezen laguntzeko), nabarmentzekotan ikasleak zergadun bihurtzen direnean nabarmenduko da, nolana, kontzientziazio hori handitzeko neurriak askotarikoak baitira.

Bigarren helburuari dagokionez, departamentuak eskaintzen dituen arreta eta zerbitzuei buruz zergadunek eta bestelako kolektiboek duten iritzia jasotzea baliabide oso egokia da zerbitzu publikoak herritarren eskaeretara egokitzen diren gertutik jakiteko. Etengabe hobetzeko tresna bat da, eta laguntzen du, batetik, zergadunek zerga obligazioak beren borondatez bete ditzaten, eta, bestetik, dauden baliabide publikoak –Gipuzkoako emakume eta gizonen onurarako direnak– optimizatzeko.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez: X



OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Ogasuna eta Finantza	2015	120.972.994 euro (*)
		2016	120.029.728 euro (*)

(*) Aurrekontu propioa (Erakundeekiko konpromisorik gabe)

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Zerga Administrazioa

Kodigoa 6.10

Genero Egokitasuna ERTAINA

Aurrekontua 20.346.706 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2013	2014	2015	2016	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokotan)	21.481,30	19.375,89	20.470,00	20.346,71	-9,80%	5,65%	-0,60%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	18,40%	14,72%	17,05%	16,82%	-19,98%	15,83%	-1,38%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra

Zerga Administrazioa programan jasota daude nagusiki barne nahiz kanpo (zergadunarekin) kudeaketa eraginkorrari lotutako helburuak eta jarduerak; eta baita Zerga Egiaztapenerako Plana ere, Administrazioak egindako jarduketak erabakitzen dituena.

Genero ikuspuntutik egokiagoak diren jarduketa lerroak honakoak dira:

- 1) Zergadunarentzako arreta zerbitzu integrala hobetzea.
- 2) Zerga obligazioak nork bere borondatez betetzea sustatzea.
- 3) Egokitzea Herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoari buruzko Legera.
- 4) Zerga Egiaztapenerako Planaren barruan iruzurraren aurka jasotako jarduketak.

Jarduketa lerro hauek pertsonekin zuzeneko harremana dutenez, merezi dute bereziki aztertzea.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

PFEZaren zergadunak sexuaren arabera aztertuta, ondorio hauek ateratzen dira:

1. Proporzioan, emakumeen aitorten gutxiagotan daude likidazioak.
2. Geroagoko likidazio bat duten gizonen aitortenen oinarri likidagarria pixka bat handiagoa da emakumeena baino.
3. Likidazioa duen kuota likidoaren proportzioa antzekoa da gizon eta emakumeen artean.
4. Emakumeen aitortenei dagozkien likidazioen kuota likidoa pixka bat txikiagoa da gizonena baino.

Aurrekoaren ondorioa da: nahiz eta emakumeen artean likidazioen proportzioa txikiagoa izan, berrikuspenen emaitzak aztertzean, antzematen da ia ez dagoela diferentziarik generoen artean. Hori berdintasun fiskalaren printzipioaren ondorio logikoa da.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Nahiz eta sexu aldagaia jasotzen ari da ia aitorten gehienetan eta zerga bulegoek emandako zerbitzu batzuetan (bereziki aplikazio berrietan), jarraitu egin behar da sexuaren arabera bereizitako datuak biltzen Zerga Administrazioaren zerbitzuen erabiltzaile guztien artean.

Horri esker, balizko joera sozialak atzeman ditzakegu, herritarrek Zerga Administrazioarekin duten harremanean.

Bestetik, Administrazio Elektronikoaren erabilera sustatzea urrats handi bat da zergadunei tramiteak errazteko. Horrek bereziki eragiten du emakumeen kasuan, ordainpeko lana eta etxeko lana (seme-alaben eta adinekoen zaintza) bateratzen baitute.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez:



OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Ogasun eta Finantza	2015	120.972.994 euro (*)
		2016	120.029.728 euro (*)

(*) Aurrekontu propioa (Erakundeekiko konpromisorik gabe)

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Aurrekontuak eta Finantzak
Kodigoa	6.20
Genero Egokitasuna	Handia
Aurrekontua	2.925.134,00 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	12/11	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	3.697,18	3.777,29	3.526,45	3.115,66	3.156,79	2.925,13	2,17%	-6,64%	-11,65%	1,32%	-7,34%
DEPARTAMENTUAREN AURREK.%	3,90%	3,31%	3,02%	2,37%	2,61%	2,44%	-15,28%	-8,62%	-21,62%	10,22%	-6,61%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Bere helburuen artean, erabaki prozesuetan generoaren ikuspegitik integrazioa helhuru du programa honek. Orokorra berrikuspena emaitzetara bideratuta aurrekontuak prestatzeko prozesuarekin batera eraman nahi du prozesu honek

Programak Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrekontu propioaren %2,68 hartzen du, baina garrantzizkoa da aurrekontuetan generoa txertatzea bultzatzeko eta koordinatzeko duen izaera instrumentalagatik.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
02- Erabakitze prozesuetan generoaren ikuspegiaren txertaketa.	02.1 Aurrekontuen aurreprietuak genero ikuspegitik aztertzea	Txostenak	1
	02.2 2017eko aurrekontuan eta 2015ko Kontu Orokorrean genero eragina ebaluatzeko txostena prestatzea	Dokumentuak	2
	02.3 Emaitzetara bideratuta aurrekontuarekin prozesu honen txertaketa.	Prozesu bien txertaketaren %	%50

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak



3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Programak ez du herritarrengan zuzeneko ekintzari. Hurrengo datuak aurrekontuko programak genero ikuspegitik aztertzeo prozesua txertatzeari buruzko dira.

	2011 (2012 AURREK)		2012 (2013 AURREK)			2013 (2014 AURREK)			2014 (2015 AURREK)			2015 (2016 AURREK)		
	Programa kopurua	Programak guzt.%	Programa kopurua	Programak guzt.%	% 12/11	Programa kopurua	Programak guzt.%	% 13/12	Programa kopurua	Programak guzt.%	% 14/13	Programa kopurua	Programak guzt.%	% 15/14
Programa egokiak	69	93,24%	71	93,42%	0,19%	71	94,67%	0,00%	71	94,67%	0,00%	73	94,81%	2,82%
Aztertutako programak	17	24,64%	34	47,89%	94,37%	71	100,00%	108,82%	71	100,00%	0,00%	73	100,00%	2,82%
Txostena	17	100,00%	34	100,00%	0,00%	37	52,11%	8,82%	39	54,93%	5,41%	44	60,27%	12,82%

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Azterketak adierazten du prozesua genero ikuspegitik egokitzat sailkatutako programa guztiak 2016 aurrekontuko ebaluazio txostenean txertatzeko ezarritako helburua kontuan izanda gauzatu dela.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

20 programak – Aurrekontuak eta Finantzak- ez du zuzeneko loturarik adierazi diren gaitasunekin, zeren eta bere helburua departamentuek genero ikuspegia txertatzeko lana bultzatu eta koordinatzea baita.

Nola nahi dela ere, aurrekontua herritarrei zuzendutako jarduketa publikoak garatzeko behar diren baliabide publikoak esleitzen dituen tresna den aldetik, eta besteak beste, haren printzipio gidariak eraginkortasuna, eragimenna, gardentasuna eta kalitatea direnez, printzipio horiei begira programa honek jasotzen dituen jarduketak "Partaidetza social eta politikoa komunitatean" deituriko 10.gaitasunarekin lotu litezke.

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Aurrekontu honetan asmo handiagoko helburu bat finkatzen da: "Genero ikuspegia erabakitze prozesuetan sartzea". Hau da, generoaren zeharkakotasunean sakontzea, inplikaturako kudeatzaileek berdintasunaren eta ekitatearen ikuspegia politika guztietan eta maila eta etapa guztietan txertatu dezaten.

Prozesu hori integratu nahi da aurrekontuaren elaborazioa berrikusteko prozesuaren barruan, eta helburua da emaitzetara bideratutako aurrekontu bat lortzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren plan estrategikoarekiko lotura izango duena.

Ikuspegi teknikoago batetik abiatuta, eta aurrekontua prestatzeko aplikazioa erabilita, egin nahi dena da programaren kudeatzaileak ikuspegi horretatik dituen helburuak identifikatzea aurrekontuko helburu eta ekintzekin, kudeaketa planarekin, eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren aurrekontu kredituekin.

Ez:



OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Ogasuna eta Finantzak	2015	120.972.994 euro (*)
		2016	120.029.728 euro (*)

(*) Aurrekontu propioa (Erakundeekiko konpromisorik gabe)

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Zerga eta finantza politika
Kodigoa	6.30
Genero Egokitasuna	HANDIA
Aurrekontua	1.677.241 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2013	2014	2015	2016	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokotan)	1.642,18	1.645,07	1.711,99	1.677,24	0,18%	4,07%	-2,03%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	1,41	1,25	1,42	1,40%	-11,13%	13,21%	-99,01%

Programaren **garrantzi ekonomikoa**, ordea, gainontzeko programetan ez bezala, sarreren aurrekontu aldetik, bai eta gastu fiskalen aurrekontuen aldetik neur daiteke, alde honetatik eragiten baitu populazioaren gainean.

Sarreren aurrekontuaren bilakaera (Itundutako zergen aurrekontua)

2013	2014	2015	2016	14/13	15/14	16/15
3.773.076	3.960.819	4.158.458	4.330.380	5,0	5,0	4,1

mila eurokotan

Gastu fiskalen aurrekontuaren bilakaera

2013	2014	2015	2016	14/13	15/14	16/15
1.739.635	1.776.713	1.862.604	1.987.898	2,1	4,8	6,7

mila eurokotan

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Programaren helburua da Departamentuari laguntzea zerga eta finantza politikako ildo nagusiak definitzeko orduan, Diputatuen Kontseiluak finkatutako jarraibideetan oinarrituz, zerga sistema ekitatiboagoa eta banakorragoa izan dadin, beti ere genero ikuspegia kontuan hartuta. Horretarako, zerga alorreko araudi sortu, eta berari buruzko aholkularitza ematen da. Zentzu honetan, gastu fiskalen bidez, besteak beste, gizartean dauden desberdintasunetan eragin daiteke.



Zerga eta finantza politika populazio osoari zuzentzen zaio, pertsona fisiko nahiz juridikoei. Hala ere, eragiteko gaitasun handiagoa dago zerga zuzenen aldetik; izan ere, eta esaterako, BEZaren araudia Estatutik ezarrita dator. Horrela, irabaziak lortzen dituen eta/edo ondare pilaketa handia duen populazio taldean gehiago eragin daiteke modu zuzenean, nahiz eta gainontzeko populazio zatiaren bizitza baldintzetan ere zeharka eragin (kenkariaren aplikazioz zenbait jarduera sustatuz, esaterako).

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Zerga sistema definitzerakoan genero ikuspegia kontuan hartzea	Azterlanak egin zerga sistemaren egitura eta ezaugarri nagusiak aztertzeko: birbanaketa, progresibitatea, genero eragina	Txostenak	6
	Proposatutako zerga araudiaren aldaketan genero eragina aztertu	Txostenak	12

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Adierazle askok erakusten dute gaur egungo gizartean emakumezkoek eta gizonezkoek ordaindutako lanagatik jasotzen dutenaren artean alde handia dagoela. Horren arrazoiak asko izan daitezke: emakumeen okupazio tasa baxuagoa da, lan merkaturatze prozesua oraindik ematen ari da; lanaldi partzialerako joera handiagoa dago emakumeen artean (zaintza eta etxeko lanen ardura gehiago dute, eta ondorioz ordaindutako lanerako denbora murriztagoa dute gizonen aldean); aurrekoarekin lotuta, enpresetako ardura postuetan emakume gutxiago dago, promoziorako aukera gutxiago dutelako (etxeko esparruari dedikazio handiagoa eskaintzen diote gizonen aldean eta honek zenbait ardura postuk eta goi karguk eskatzen duten denbora inbertsioa galarazten die). Eta noski, ez da ahaztu behar sexu-diskriminazioa ere egon daitekeela horren atzetik; hau da, lan berdina egiteagatik soldata desberdina jasotzea.

Oro har ematen den errenten diferentzia hori garbi ikusten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) datuak aztertzen badira. Alde handia dago emakumezkoak eta gizonezkoak aitortutako errenten artean. 2012ko datuen arabera, arraila (hau da, emakumezkoek falta zaiena gizonezkoen batez besteko errenta berdina izateko) %40,6koa da. Eta gainera, azken urteetan, nahiz eta gora behera batzuk izan, ez du hobekuntza nabarmenik azaldu.



Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga – Aitortzaileen sexuan oinarritutako azterketa
Oinarri ezargariaren batez bestekoa / Promedio de la base imponible

	2009	2010	2011	2012	Aldea Oinarria Arraila (puntuak)		
					10/09	11/10	12/11
					Emakumezkoak	15.468	15.161
Gizonezkoak	25.865	26.058	26.193	25.080	0,7	0,5	-4,2
Arraila (%)	40,2	41,8	40,4	40,6	1,6	-1,4	0,2

zenbatekoak eurotan

Bestalde, PFEZren datuetan ere ikusten da nola zergadun guztien %44 inguru emakumezkoa dela eta beste %56 inguru gizonezkoa. Baina oinarri likidagarria aztertzerakoan, emakumezkoen pisua nabarmen jaisten da (%37 inguru).

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga – Banaketa (%) sexuen arabera

	Emakumezkoak			Gizonezkoak		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012
Aitorpen kopurua	43,8	44,4	44,3	56,2	55,6	55,7
Oinarri likidagarria	37,1	37,3	37,2	62,9	62,7	62,8
Kenkariak						
- Ohiko etxebizitza erostea	39,1	39,5	40,1	60,9	60,5	59,9
- Ohiko etxebizitza alokatzea	43,3	42,2	44,5	56,7	57,8	55,5
- Mendekotasuna	45,5	46,5	47,5	54,5	53,5	52,5
- Ondorengo ahaideak	38,5	39,5	39,7	64,0	63,3	60,3

Baina kuotaren kenkari gehienetan emakumezkoen pisua beraien oinarri likidagarriaren pisuaren gainetik dago. Adibidez, eta ohiko etxebizitza erostegatik dagoen kenkariaren kasuan ikusten da %40,1a emakumezkoek aplikatzen dutela, eta oraindik gehiago da (%44,5) alokairuaren kasuan. Mendekotasunaren kenkarian, berriz, emakumezkoek zenbateko osoaren %47,5a aplikatzen dute; horrek badu arrazoi demografiko bat, emakumezkoak gehiago bizi dira. Bestalde, eta gizarte mailan esanguratsua den beste egoera batean, ondorengo ahaideekin bizikidetzatza adierazten duen kenkarian, emakumezkoek zenbateko osoaren %39,7a aplikatzen dute.

PFEZ aurkezteko moduak beste ezaugarri esanguratsu bat erakusten du genero aldetik. Baterako aitortpenak (familia unitateko kideek batera tributatzaren dutenean guztien errentak metatuz) nabarmen jaitsi dira azken hamarkadan: 1994an %37,3 ziren eta 2012an %21,3.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga – Baterako aitortpenak (%)

Ekitaldia	%
1994	37,3
2000	30,4
2004	27,7
2012	21,3



Baterako aitopenen bilakaera horren arrazoi nagusia da emakumeen lan merkaturatze progresiboa: 20-64 urte bitarteko Gipuzkoako biztanleriaren okupazio tasari erreparatzen badiogu (Eustat-en arabera), emakumezkoen portzentajea 1994an %35,7koa zen, eta 2012an %66,0ra iritsi da. Hazkundera nabarmena izan da, eta ez da gertatu bakarrik ekonomia oso ondo joan den urteetan. Krisi garaian ere handitu edo, behintzat, mantendu egin da okupazio tasa; izan ere, betidanik emakumezkoak lan egin duten sektoreetan krisiak gutxiago eragin du. Eta gainera, krisi ekonomikoaren ondorioz, gizonezkoen lan galeraren aurrean, zenbait emakumek lan merkatura sartu dira.

Dena den, baterako aitopenen horien barruan bi egoera sozial oso desberdinak ezkututzen dira:

- Familia biparentalak: legez banandu gabeko ezkontideek edo izatezko bikoteko lagunek osatzen dutena. Horietan egon daiteke errenta jasotzaile bakarra edo bi.
- Familia monoparentalak: senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, gurasoetako batek eta adin txikiko seme-alabek osatzen dutena.

2012ko PFEZren datuen arabera, aurkeztutako 82.316 baterako aitopenetatik %84,9a (69.458 aitopenen) familia biparentalek aurkeztutakoak dira, eta beste %15,1a (12.858 aitopenen) familia monoparentalek aurkeztutakoak. Baina zergadunaren sexua eta familia mota uztartuz gero, lortzen diren emaitzak adierazgarriak dira. Izan ere, emakumezkoetan familia monoparentalak familia biparentalak baino gehiago dira.

Baterako aitopenen zergadunaren sexua eta familia motaren arabera

Baterako aitopanak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Biparentalak	6.340	63.118	69.458
Monoparentalak	7.792	5.066	12.858
Guztira	14.132	68.184	82.316

Ikusten denez, gizonezkoek aurkeztutako baterako aitopenen ia-ia guztiak familia biparentalei dagozkio; emakumezkoek aurkeztutako aitopenen erdia baino gehiago (%55,1) familia monoparentalei dagozkio. Eta zergadun nagusia emakumezkoa den familia monoparentalen kopuruak (7.792) gizonezkoena (5.066) baino nabarmen handiagoa da.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Lan merkatuaren errealitate bat da emakumezkoen eta gizonezkoen soldaten arteko aldea; eta horren isla da PFEZn aitortutako errentetan dagoen aldea. Berez, zerga sistemak dituen baliabideekin zaila da kanpotik emanda datorren banaketa hori aldatzea; baina aukera dago zergak ordaindu ondorengo errenten banaketan eragitea.

- Zerga sistemaren birbanaketa funtzioaren bidez, zerga ordaindu ondoren dagoen aldea murriztu daiteke. Esaterako, eta kontuan izanda emakumezkoek errenta maila baxuagoa dutela, kolektibo horri onurak ekartzen dizkieten neurriek eragin gehiago izango dute sexuen arteko ezberdintasunak murrizterakoan. Edota, emakumezkoak gehiago aplikatzen dituzten kenkarien zenbatekoak handitzen badira, beraien egoera zerga ordaindu ondoren hobea izango da.
- Zerga sistemek pertsonen erabakietan pizgarriak ipini edota kendu egiten dituzte. Eta horien artean, esanguratsuenak lan merkatuarekin lotutakoak dira. Horrela, zergek, eta bereziki PFEZk, kontuan izan beharko lituzke emakumezkoek ordaindutako lan merkatura sartzeko dituzten beharrak: seme-alaben zaintza, mendekotasuna duten pertsonen zaintza, eta hori guztia, ahaztu gabe etxeko lanak gizon eta emakumeen artean ekitatiboki banatzeko ezarri daitezkeen pizgarriez.



Azken finean, askotan zergak familia politikak eta gizarte politikak aurrera eramateko erabiltzen dira. Beraz, eta emakumezkoen eta gizonezkoen benetako berdintasuna lortzea helburu hartuta, zerga sistemak ezin du izan bere baitan inongo genero diskriminaziorik.

Zerga eta Finantza Politikako programaren helburu nagusienetako bat da zerga sistema justuagoa, ekitatiboagoa eta banakorragoa lortzea. Horrela, gizarte orekatuagoa izango dugu, eta emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasunak murriztu egingo dira. Hori lortzeko, ekitatea eta birbanaketa ahalbidetuko duten neurriak bultzatuko dira, zergen progresibitatea bilatuz.

Hori guztia neurtzeko erabiltzen den adierazletako bat Dispertsio Indizea da. Berak, talde batean dagoen desberdintasuna neurtzen du, Otik gertu dauden balioek berdintasun osoa adierazten dutelarik eta 1etik gertu daudenek erabateko desberdintasuna. Zerga arloan errenten arteko desberdintasuna neurtzeko aukeratutako aldagaia PFEZko oinarri likidagarria zerga ordaindu ostean da; hau da, oinarri likidagarria ken kuota likidoa.

Gipuzkoako PFEZ – Dispertsio indizea (%)

	2009	2010	2011	2012
Oinarri likidagarria	55,8	56,1	56,9	55,1
Oinarri likidagarria ken kuota likidoa	50,1	50,2	50,9	49,2
Aldea (puntuatan)	5,7	5,9	6,0	5,9

Datuak ikusita, esan dezakegu, PFEZk baduela birbanaketa efektua. Zergaren aurretik dagoen errenta banaketa 6 puntu inguru hobetzen da zerga ordaindu ondoren. Ez da ahaztu behar, indizea Otik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta banaketa orekatuagoa dela. Jakinda emakumeen errenta maila gizonena baino askoz txikiagoa dela, Dispertsio Indizearen jaitziera bat desiragarria litzateke, honek adieraziko bailuke gizartean dagoen desoreka gutxitzen ari dela, berdintasunaren mesederako.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Zerga sistemaren egiturak eta ezaugarriak zerikusia handia izan dezake pertsonen bizi kalitatea erabakitzen duten funtsezko zenbait gaitasunetan. Halere, batean eragiten du nagusiki Zerga eta Finantza Politikak: diru sarrerak eskuratzeko aukera.

Lehen aipatu dugun bezala, nahiz eta soldata edota errenta banaketa merkatuak eman, birbanaketa funtzioaren bidez zerga ordaindu ondorengo banaketan eragin dezake zerga sistemak; hau da, diru sarreraren esparruan. Gainera, eta zergetan ezarri daitezkeen onura fiskalen bidez eragin daiteke: ordaindutako lanerako aukeran eta zaintza egokirako aukeran.

Eta zeharka, diru sarrerak eskuratzeko aukeran eraginez gero, bizi kalitatean zerikusia duten zenbait gaitasunetan eragin daiteke: osasunerako aukeran; hezkuntza eta ezagutzarako aukeran; etxeko esparru egokia eta segurua izateko aukeran.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



OGASUNA ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Ogasuna eta Finantzak	2015	120.972.994 euros (*)
		2016	120.029.728 euros (*)

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena FORU AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA

Kodea 6.40

Genero egokitasuna Txikia

Aurrekontua 1.006.766 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa, eta departamentuarekiko azken urteotako portzentajea

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokotan)	1.044,40	1.016,76	992,58	1.015,58	1.006,77	-2,65%	-2,38%	2,32%	-0,87%
DEP. AURR. arekiko %	0,91%	0,87%	0,75%	0,84%	0,84%	-4,71%	-13,40%	11,30%	-0,09%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Programaren bukaerako hartzaileak pertsona fisikoak edota juridikoak dira, bai eta horien ordezkariak ere. Zentzu horretan, atzeman dugu Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan erreklamazioa aurkezten duten pertsonen buruz sexuaren arabera datuak jasotzeko behar direla.

Horretarako, erreklamazioak kudeatzeko programa informatikoa aldatu dugu, pertsona fisikoen erreklamazio ekonomiko-administratiboari buruzko datuak lortzeko, gizonen eta emakumeen zenbat aurkeztu duten jakite aldera. Era berean, erreklamazioa aurkezten duten pertsona juridikoen kopurua jakitea beharrezkoa da, eta, aldi berean, horien artean ordezkariari buruzko datua, alegia, gizona edo emakumea ote den.

Aurten lehendabiziko datuak eskuratu ditugu. Eta fitxarekin batera emaitza guztien taula bat jasota dago, zerga edo gaiaren arabera sailkatuta, betiere emakumeen eta gizonen aurkeztutako erreklamazioak bereizita, kasu bakoitzeko portzentajeekin batera. Ordezkarien datuak falta zaizkigu genero ikuspegitik. Ezin izan ditugu fidagarritasunez bildu, eta datorren urtean jasotzea espero dugu.

Taulako datuetan oinarrituta, nabarmendu daiteke 2014an aurkeztu eta tramitatutako 1.021 erreklamazioetatik erdia baino pixka bat gehiago pertsona fisikoek aurkeztuak izan zirela, zehazki %54,55; aurkeztutako erreklamazioen %45,45, aldiz, pertsona juridikoek aurkeztuak izan ziren. Bakarrik pertsona fisikoek aurkeztutako erreklamazioak kontuan hartuz gero, erreklamazioen %35,01 emakumeen jarriak dira eta %64,99 gizonen aurkeztuak.

Gaien arabera areago sakonduz gero, adierazi daiteke emakumeen aurkeztutako erreklamazioak ez direla inongo zergatan iristen aurkeztutako erreklamazio guztien %50era, salbu eta kasu jakin batzuetan, non erreklamazioen kopurua txikia den eta erreklamazio batek portzentaje handi bat eragin dezakeen. Hala gertatu da udal tasen kasuan edo udal zerga-bilketaren kasuan. Gai horiek alde batera utzita eta 10 erreklamaziotik gora aurkeztu zaizkien gaiak kontuan hartuta, datuen arabera, ondarearen gaineko zergan (%43,75) eta zerga zehapenetan (%43,48) aurkitu daiteke emakumeen aurkeztutako erreklamazioen portzentaje handiago bat. Aitzitik, balio erantsiaren gaineko zergan izan da emakumeen aurkeztutako erreklamazioen portzentajerik handiena (%13,64); ondoren, zerga



sarreraren bilketaren alorrean izan da (%19,05). Erreklamazio gehien jasotzen dituen zergari dagokionez, alegia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, emakumeek aurkeztutako erreklamazioen portzentajea %33,55 da.

Bestetik, barruko antolakundeari dagokionez, eutsi egiten zaio genero ikuspegia prozedura administratiboetan sartzeko ahalegina egin, sendotu eta jarraipena egiteko helburuari. Aurrerapauso eman da Auzitegiko langileei berdintasun arloan prestakuntza espezifikoa emateko bidean. Izan ere, hainbatek parte hartu dute gai horri lotutako prestakuntza saioretan. Nolanahi ere, eutsi egiten zaio genero ikuspegia Auzitegiaren prozeduretan sartzeko joateko helburuari. Ondorengo urratsa izango da ikuspuntu hori Auzitegiak bideratzen dituen dokumentuen txantiloietan sartzea.

Gaur egun plantilla honela osatuta dago:

SEXUA	SAILKAPEN TALDEA							
	LEHENDAKARIA	IDAZKARIA	BOKALAK	A1-GMT	AOT	C1-ADMINISTRARIA	C2-Administrari laguntzailea.	GUZTIRA
Emakumeak	1		2*	3		2		8
Gizonak		1	2	2	1		1	7
GUZTIRA	1	1	4	5	1	2	1	15

(*) Emakumezko hirugarren bokal bat bada, Udal Zergen Aretokoa, eta udalek EUDEL bidez izendatzen dute. Sartu gabe dago Auzitegiko plantillatik kanpokoa delako.

Auzitegiak Batzar Osoan, aretotan edo banaka (edozein kide) jarduten du. Auzitegiko Batzar Osoa lehendakariak, idazkariak eta izendatutako bokal guztiek osatzen dute. Erreklamazio aretoak honako hauek dira:

SEXUA	ZERGA ITUNDUEN ERREKLAMAZIOEN ARETOA			
	LEHENDAKARIA	IDAZKARIA	BOKALAK	GUZTIRA
Emakumeak	1		2	3
Gizonak		1	2	3
GUZTIRA	1	1	4	6

SEXUA	UDAL ZERGEN ERREKLAMAZIOEN ARETOA			
	LEHENDAKARIA	IDAZKARIA	BOKALAK	GUZTIRA
Emakumeak	1		1	2
Gizonak		1	2 (*)	3
GUZTIRA	1	1	4	5

(*) 2013ko irailera arte, bokal batek gehiagok (gizona) parte hartzen zuen Udal Zergen Erreklamazioetako Aretokoa. EUDELek beste bokal bat izendatu behar du datozen hilabeteetan.

Baldin eta banaketari sailkapen taldearen arabera begiratzen badiogu, zuzendaritza eta buruzagitzako postuak orekatuta daude genero ikuspuntutik; teknikarien postuetan, aldiz, gehienak emakumeak dira; C1 eta C2 taldeetan emakumeak nagusi dira.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarrien bidez jarritako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburua



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA, AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK EDO HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



TAULA: GAI ETA GENEROAREN ARABERA AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK. 2014ko EKITALDIA

Gaia	Giz.	Em.	PJ	Guztira	Giz. %	Em. %	PJ %	PF guztira	Giz. %	Em. %
PFEZ. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	204	103	1	308	66,23	33,44	0,32	307	66,45	33,55
BEZ. Balio erantsiaren gaineko zerga	19	3	40	62	30,65	4,84	64,52	22	86,36	13,64
SZ. Sozietateen gaineko zerga	0	0	143	143	0,00	0,00	100,00	0	0,00	0,00
ODZ. Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	3	2	0	5	60,00	40,00	0,00	5	60,00	40,00
OE eta EJD. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	3	3	25	31	9,68	9,68	80,65	6	50,00	50,00
ZGZB. Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia	1	1	0	2	50,00	50,00	0,00	2	50,00	50,00
ZB. Fabrikazio zerga bereziak	4	1	33	38	10,53	2,63	86,84	5	80,00	20,00
OZ. Ondarearen gaineko zerga	9	7	0	16	56,25	43,75	0,00	16	56,25	43,75
PR. Prozedura	5	3	5	13	38,46	23,08	38,46	8	62,50	37,50
BI. Berandutze interesak	6	4	6	16	37,50	25,00	37,50	10	60,00	40,00
ZZ. Zerga zehapenak	39	30	77	146	26,71	20,55	52,74	69	56,52	43,48
ED. Erantzukizunaren deribazioa	5	3	6	14	35,71	21,43	42,86	8	62,50	37,50
ZSB. Zerga sarrerren bilketa	9	3	18	30	30,00	10,00	60,00	12	75,00	25,00
GFB. GFaren sarrerren bilketa	17	4	41	62	27,42	6,45	66,13	21	80,95	19,05
JEZ. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1	34	36	2,78	2,78	94,44	2	50,00	50,00
OHZ. Ondasun higiezinaren gaineko zerga	32	20	28	80	40,00	25,00	35,00	52	61,54	38,46
LBG. Lurzoruen balio gehikuntza	2	2	2	6	33,33	33,33	33,33	4	50,00	50,00
EIOZ. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	0	0	2	2	0,00	0,00	100,00	0	0,00	0,00
TMIZ. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	1	0	0	1	100,00	0,00	0,00	1	100,00	0,00
UT. Udal tasak	1	3	1	5	20,00	60,00	20,00	4	25,00	75,00
PUE. Partikular eta udalen arteko erreklamazioak	0	0	1	1	0,00	0,00	100,00	0	0,00	0,00
UO. Udal ordenantzak	1	0	0	1	100,00	0,00	0,00	1	100,00	0,00
UB. Udalen bilketa	0	2	0	2	0,00	100,00	0,00	2	0,00	100,00
Hainbat	0	0	1	1	0,00	0,00	100,00	0	0,00	0,00
Guztira	362	195	464	1021	35,45	19,10	45,45	557	64,99	35,01

Em - Emakumeak G - Gizonak Erreklamazioak PF - Pertsona fisikoak PJ - Pertsona juridikoak